



PUBLIZITATEA

10 urte bete-bete

2023 URR: 09

Iraitz Mateo



Goiatz Labandibarrek lehen eleberria kaleratu du: ‘Bekatua’

36 urte ditu Garazik, eta bere bikotea ez den 18 urteko gazte baten ohean esnatu da parrandako gau baten ostean; ohean dagoela bururatutakoak bildu ditu Goiatz Labandibar idazleak bere lehen eleberrian. Ramiro Pinilla eleberri laburren 2021eko saria irabazi zuen, eta Ereinek argitaratu du.



Goiatz Labandibarrek bere lehen eleberri laburra aurkeztu du astelehen goizean Donostian. (Gorka Rubio | FOKU)

Narrazio laburrak idatzi izan ditu orain artean batez ere, eta sarritan entzun behar izan du «noizko nobela?» galdera, «agian, inoiz ez» erantzun ohi zuen Goiatz Labandibar idazleak, baina udazkenarekin batera iritsi da idazle oiartzuarraren lehen eleberria, ‘Bekatua’. Tekila usain eta zaporez bustitako ia ehun orrialdeko eleberri laburra aurkeztu du astelehen goizean Donostian.

Garazi da eleberriko protagonista, eta Uxue Razquin Erein argitaletxeko editoreak azaldu du protagonistari «biharamunak irauten dion adina irauten» duela liburuaren irakurketak. 36 urte dituen emakumea da Garazi, eta 18 urteko gazte baten ohean esnatzen da parrada baten ostean; gazte hori ez da «bere Axi», eta biharamuneko ideien zurrunbiloak jaten du protagonista. «Tonu jostari eta makarra» nabarmentzen dela azpimarratu du editoreak.

Aipaturiko eszenarekin abiatzen da eleberria, etengabean hori da eszenatokia. Gazte ezezagunaren ohean dagoela, protagonistak dituen hausnarketek osatzen dute liburua: «sozialki ondoegi ikusita ez dauden bi kontu zeharkatzen dira; batetik Garazik adarrak jarri dizkiola bere bikoteari, eta bestetik bera baino ia hogei urte gazteagoa den mutil batekin». Abagune horretatik Garazi pertsonaia bere buruari eta gizarteari begiratuko dio, «hasiera batean konexio gabeko ideiak izan daitezkeenetan loturak eta koherentzia lortuz», zehaztu du idazleak.

Razquinek azpimarratu du eleberriko «indargunea» protagonista bera dela: «Oso ongi eraikita eta finkatuta dago pertsonaia, eta horrek bere hausnarketek, pasadizoez eta ideiek beste pisu bat hartzea ekarri dute; Garazi ezagutzera iristen zara». Hirugarren pertsonan dago idatzita, eta idazleak azaldu du Garaziren ikuspegia bakarrik jasotzen dela kontakizun osoan: «Axi eta Mattin (bere bikotea eta ondoan duen gaztea) ez dira aktiboak kontakizunean, ez dut interesik izan beraien ikuspegia zein den asmatzeko, protagonista bat eta bakarra dago, Garazi».

Ideiaen iturburua

Labandibarrek lo egin ezinean gaudenean sortzen den ideia zurrunbiloaren inguruan idatzi nahi zuen, «norbaiten lo ezina» kontatu, eta momentu horretan bururatzen diren konexiorik gabeko ideiak landu. Aurkezpenean kontatu du, horretarako aitzakia bat behar zuela: «Krisi existentzial horretara edota erresaka emozionalera iristeko aitzakia bat behar nuen, baina ez nuen nahi zerbait transzendental edota atzera bueltarik gabekoa izaterik, ez nuen heriotzarekin lotu nahi». Razquinek aitortu du asko gustatu zitzaiola irakurritakoan, eta euskal literaturan estilo horretako eleberrien «falta sumatzen» duela.

Ereineko editoreak eleberri osoan dagoen umorea azpimarratu du, eta izenburura ere tonu hori eramateko beharraz ohartarazi zion idazleari lehen bertsioa irakurtzerakoan. Izan ere, hasiera batean ‘Biharamuna’ zen eleberriaren izenburua; baina azkenerako, hamaika proposamen egin ostean ‘Bekatua’ izenburua egokiagoa iruditu zitzairen. Azaleko irudiak ere horren berri eman nahi du, Iñaki Zapirainek egindakoa da, eta Labandibarrek azaldu ditu aurkezpenean irudiaren nondik norakoak: «Uste dut aipatzen nuen ideien zurrunbiloa keak adierazten duela, txupitoea jartzearena Iñakiren ideia izan zen, eleberriko elementuetako bat delako, eta eskua zein eskuaren itzalak ere badu bere esanahia».

2021eko Ramiro Pinilla eleberri laburren saria irabazi zuen Labandibarrek, eta ondoren, Ereinek, argitaratzea erabaki zuen. Luzeerari dagokionez beraz, eleberria izan arren, laburra izateko baldintza zuen eta horrela mantentzea erabaki dute ondorengo editoretzan ere. Labandibarrek lehiaketara aurkezteko asmorik gabe idatzi zuen eleberria, eta ondoren lehiaketako neurriei bat zetorrela ikusita aurkezte erabaki zuen. Narrazioak idaztetik eleberria idaztera igarotzea asko kostatu zaión galdetuta, ezezkoa erantzun du idazleak: «Prozesu luzea izan da, ez dut azkar idatzi, baina ez nuen ez egin beharrik, erraz egin dut».

PUBLIZITATEA

HAU DA 2030 AGENDAREN ABC-A

PUBLIZITATEA

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

PUBLIZITATEA



Klikatuenak



Violaciones a mujeres y hombres en comisaría, entre los casos reconocidos




Palestinaren aldeko «argazki masiboa» atara dute Athletic-eko zaleak, Kirruli aurrean



Cuatro barrios de Gasteiz unidos ante un problema social que va más allá de la ocupación



Estruendo multitudinario en Gernika contra el proyecto de Guggenheim en la reserva de Urdaibai



Palestinar herriak duen erresistentziarako eskubidea aldarrikatu dute Bilboko kaleetan

Interesgarria izan daiteke zuretzat



EKONOMIA

Imaz, punta de lanza contra el impuesto a las energéticas con el apoyo del PNV

Ramón Sola



MUNDUA

Die Linke entra en fase de escisión y liquidación

Ingo Niebel



MUSIKA

«Tengo muchas cosas que me entretienen, pero sólo una pasión: la música»

Sergio Iglesias



EUSKAL HERRIA

Txantxikuaren birkonkista: kantu berri bat horma zaharren artean

Iñaki Sanz-Azkue

Info

Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarrak
Gasteiztarra
Iruindarra

Kirolak

Futbola
Saskibaloia
Eskubaloia
Pilota
Txirrindularitza
Arrauna
Motoak
Herri Kirolak
Errugbia

Iritzia

Editoriala
Zugazart
Artikuluak
Zuzendariari eskutitzak
Iritziz Blogak

Kultura

Bideoak

Argazki galeriak
Audioak

Eskelak

Denda
Eguraldia

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

Webgune hau reCAPTCHA-k babestuta dago eta Google Pribatutasun Politika eta Zerbitzu Baldintzak aplikatzen dira.